ESKABIDEA ETA MEREZIMENDUEN AURKEZPENA

Epea: 2026ko azaroaren 24tik abenduaren 22ra bitartean, biak barne.

1. Sartu **Hezigunean** (https://hezigunea.euskadi.eus) – **«EPE 2026. Maisu-maistrak» – «Onartzeko-eskabidea»**.



2. Hautatu erabili nahi duzun **identifikazio sistema**:



3. Eskabidea bete:





"Datuen babesa" laukia aktibatu ondoren (gorriz), bete nahitaezko eremu guztiak.

"Posta-kodea" eremuari dagokionez, idatzi zenbakia eta baliozkotu (eskuinean dagoen botoi berdea sakatuz). Aplikazioak automatikoki beteko ditu probintzia eta udalerria.

GARRANTZITSUA: eskabidean alegatzen den titulazioaren izena zehatza izango da merezimendua baloratzeko kontuan hartuko dena "II.1.- Espediente akademikoa kidegoan sartzeko alegatutako tituluan (batez besteko nota)", betiere egiaztagiria epe barruan aurkezten bada edo Hezkuntza saileko Langileen Erregistroan jasota badago.

Era berean, ezin dira bi titulazio adierazi "Alegatutako titulazioaren izena" eremuan. Bi edo gehiago izanez gero, betekizun gisa zer titulazio alegatu nahi duzun adierazi behar duzu (bestea merezimendu gisa zenbatzeko). Kontuan izan aukeraketa horrek merezimenduen zenbaketa baldintzatu ahal izango duela, deialdiaren I. eranskinean ezarritakoaren arabera.

4. Sakatu **"Datuak grabatu"** eta eskuratu eskaeraren frogagiria ("Interesdunarentzako alea"), **"Frogagiria"** klikatuz.

5. Ordaindu **tasa** ordainketa-pasabidearen bidez.

6. Eskabidearekin batera, deialdiaren **I. eranskinean** aurreikusitako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioaren kopia aurkeztu. Merezimenduak egiaztatzeko agiriak soilik aurkeztu ahal izango dira eskabidea amaitu eta erregistratu ondoren. Horretarako, sartu **"Merezimenduak entregatzea"** atalean, erantsi **"Merezimenduak alegatzeko eta aurkezteko orria"** eta **dokumentazioa**, jarraibideen arabera.



Ofizioz aintzakotzat hartzen ez diren merezimenduen egiaztagiriak baino ez dira alegatu eta aurkeztu behar, eta ofizioz aintzakotzat hartzen ez diren arren Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota ez daudenak ere bai. Horretarako, jasota daudela egiaztatu beharko dute eskatzaileek.

Egiaztapen hori egiteko, izangai bakoitzak bere espediente pertsonalean dagoen Informazioa kontsultatu beharko du, helbide honetan: https://hezigunea.euskadi.eus/ (sartu «Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza») – «Eremu pertsonala» – «Nire datu laboralak»; honako atal hauetan:

– Zerbitzu-orria.

– Tituluak, espezialitatea eta ziurtagiriak (atal honetan espediente akademikoaren batez besteko nota ere ager daiteke).

–Ikastaroei dagokienez, helbide berean kontsultatu beharko da: «Eremu pertsonala» – «Nire prestakuntza» – «Nire ikastaro guztiak ikusi».